



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



Asteartea
2008-02-26

VI.URTEA 1.371.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Kultur Astearen baitan, ikasleek egindako elbarritasunaren inguruko tailerreko une bat. HITZA

DATORREN URTEKO KULTUR ASTEARI SO, JESUSEN BIHOTZAN

VILLABONA II. Kultur Astea bukatu berri dute Jesusen Bihotza Ikastolan; balorazio «oso positiboa» egin dute ordezkariak 4

Antolatzaileak «oso gustura» daude 'Ahoz aho' jaialdiak izan duen harrera onarekin

TOLOSA «Tolosako jaialdia baliagarria izan da Euskal Herriko beste inguru batzuetara iritsi ahal izateko», azaldu du Antonio Gonzalez antolatzaileak 7

Jai giroa eta aldarriak 'Independentzia Egunean'

POLITIKA Amezketan eta Leaburu-Txaraman ospatu zuten herenegun, ekitaldi ugariarekin 6



Jende ugari bildu zen Anoetako pilotalekuan. HITZA

Oso jendetsua izan da KMK 2008ren kantu afaria

ANOETA 300 lagun inguru elkartu ziren, eta «oso gustura» agertu dira antolatzaileak 4

Tolosa-
Aralarrek
porrotarekin
amaitu du
lehen fasea

TOLOSA 56-63 galdu zuten tolosarrek Suminan taldearen aurka 2

Jende ugari
izan da
seigarren
Blues Jaialdiko
kontzertuetan

ZIZURKIL Antolatzaileek aurtengo jaialdiaz balorazio positiboa egin dute 4

Ligaxkako hirugarren jardunaldian askotariko emaitzak TAKek

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Batel Ligaxkaren hirugarren jardunaldia jokatu zuten Trintxerpen Tolosaldeko Arraun Klubeko taldeek.

Kadete nesketan Tolosaldea Ak hirugarren egin zuen, Ck zortzigarren eta Bk bederatzigarren; Infantil mutiletan Tolosaldea Ak bosgarren egin zuen, eta Bk zazpigarren; Kadete mutiletan Tolosaldea Ak bigarren egin zuen, Bk bosgarren, Ck bederatzigarren eta Dk hamairugarren. Jubenil nesketan, Tolosaldea Ak bigarren amaitu zuen, eta Bk seigarren. Azkenik, jubenil mutiletan, Tolosaldea laugarren geratu zen.

Hirugarren mailako Tolosak 0-1 galdu du Baskonia taldearen aurka

ERREDAKZIOA

Hirugarren mailako Tolosa futbol taldeak 0-1 galdu zuen Baskonia taldearen aurka. Ondorioz, 22 punturekin 18. postuan dira tolosarrak. Hurrengo norgehiagoka Portugaltereb aurka izango dute.

3. mailako neskek atsedena izan zuten. Jubenilen Ohorezko dibisioan, G. Rio Venak irabazi zuen 2-1 Tolosaren aurka; Lurraldeko 1. mailan, Mariñok eta Tolosak berdindu egin zuten hiruna; Jubenilen Ohorezko mailan, Tolosak galdu egin zuen 1-2 St. Tomas Lizeoaren aurka; Kadeteak Ohorezko mailan, Zumaiakok galdu egin zuen 1-3 Tolosaren aurka; Kadeten 1. mailan, Tolosak galdu egin zuen 7-1 Idiazabalen aurka; eta azkenik, Infantilen Ohorezko mailan, Herrerako Sporting taldeak 2-1 irabazi zuen Tolosaren aurka-kopartida.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Tabernaria.** Anoetako Itzuli tabernak neska euskalduna behar du. 8. edo 4 ordurako. 635 74 52 91 / 943 69 43 13.

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosa erdian bi logelako etxea salgai. Egoera onean, oso merkea. 665 70 86 35.



Xake Txapelketa azken saioaren zain

XAKEA • Tolosaldeko Eskolarteko Xake Txapelketen hirugarren saioa jokatu zuten igandean. Saioa guztiz erabakiorra izan zen, beste saio bat falta den arren postu batzuk finkatuta geratu baitziren. Horrela, infantiletan Orixeko Beñat Salbarredik lehen postua ziurtatu zuen. Nesketan, beste horrenbeste gertatu zuen, Jone Mujikkak (Samaniago) hiru puntu eta erdiko aldea ateratzen zion bigarrenari. Benjaminetan, aldaketa

posible den arren, Hirukideko Mikel Aretzagak eskuratu du urrezko domina, hiru puntura baitu bigarren doan Igor Mendizabal (Alegiko San Juan). Alebinetan lehena Jesusen Bihotzak Aitor Villenak jarraitzen duen arren Samaniago Danel Intxaurren doan orain bigarrena. Datorren igandean izango da azken saioa, 11:00etatik aurrera Tolosako Kultur Etxean, eta ondoren, 12:30ean, sari banaketa. HITZA

Porrotarekin amaitu du lehen fasea Tolosa-Aralarrek

Saskibaloia • 56-63 galdu zuten tolosarrak Suminan taldearen aurka; hurrengo partida bi aste barru jokatuko dute.

ERREDAKZIOA

Amaitu da lehen fasea Tolosa-Aralarrentzat eta, «ez du modu oso onean» egin. Izan ere, 56-63 galdu ostean Suminan taldearen aurka, 3 garaipen eta 5 porrotekin ekin behar harko diote tolosarrek maila mantentzeko helburuari. Horretaz gain, Ion Izagirrek orkatila bihurtu zuen eta egun batzuetan atsedena hartu beharko du.

Partidarako baja bakarra Gonziarena izan zen, kadeteekin bidaiatu baitzuen entrenatzaile lanetan.

@ Zurea da hitza. Eskualdeari buruzko berriak, kezak, iradokizunak, iritziak... sartzeko aukera ematen dizu gure webguneak *Zurea da hitza* izeneko atalean. Bertan, nahi duzun berria sartzeari gain, argazkia ere sar dezakezu, eta webgunean ikusteaz gain, egunkarian ere argitaratuko dugu berria. Albisteak edo keza edo iritziak sartzeari gain, zure datuak sartzeari gain gomendatzen dugu, albisteak gehiago jakiteko harremanetan jarri behar duguneko: www.tolosaldekohitza.info

Honen lekukoa, Alain jubenilak hartu zuen.

Partida hasierak itxura polita izan zuen etxe koentzat. Lehen laurdenetik aurrea hartu zuten markagailuan eta atsedendira arte aurretik izatea lortu zuten zazpi puntuko errenta interesgarriarekin. Bi laurdenak antzeko joan ziren, defentsa lan polita eginenez eta erasoan gauzak nahiko erraz eginez, piboten arteko erlazioa baliatuz eta kanpoko jokalariek erakusten zuten arriskuarekin.

Erasoan freskotasuna galduz

Dena den, taldearen egoera fisikoa ez da momenturik onenak pasatzen ari eta hori partidaren erditik aurreranabartu egiten da. Atsedendira 35-28 iritsi eta gero, gauzak ondo zirela zirudien. Baina momentuko ilusioa besterik ez zen izan. Izan ere, une honetatik aurrera, erasoan freskotasun falta asko nabaritu zen. Hasieran sartzen ziren jaurtiketak huts egiten hasi ziren eta aurkaria gero eta erasoago zebilen bai erasoan eta bai defentsan.

Honen lekuko da azken hoge minutuetan sartutako puntu kopurua (21), partida bat irabazi ahal izateko eskasegia. Erabatiko gain-behera azken laurdenean etorri zen, non etxe koek 8 puntu sartu zituzten eta aurkariak 18. Azkenean

56-63 eta lehen fasea amaituta. Partzialei dagokionez, 17-14, 35-28, 48-45, 56-63 izan ziren. Tolosako taldean Kaiet izan zen puntu gehien batu zituen 17 rekin; Kikek 15 puntu egin zituen, Goarrek 11, Haritzek 6, Josebak 4 eta Inigo 3 batu zituen.

Bigarren faserako zozketa egiteko

Tolosa-Aralarrek 3 garaipen eta 5 porrotekin hasiko du bigarren fasea. Bizkaitarrek, aste honetako aurkariak, garaipena ezinbestekoa zuten igoera faserara sailkatzeko eta hala ere, ez dute euren helburua lortu eta jeitsiera ekiditea izango dute hurrengo asteetako erronka, tolosarrek bezalaxe.

Bigarren fasea bi aste buru barru hasiko da. Oraindik zozketa egiteko dago, baina jeitsiera multzoa osatuko duten taldeak Easo Atco Sn., Goierri Verkol, Promociones Legarzia, ATE Asesoer La Salle, Ocaso Berrio-Otxoa, Suminan, Padura, Universidad de la Rioja, UPV Alava eta Tolosa-Aralar Kirolak izango dira.

Zozketako zenbaki saritua

Ohikoa den moduan, partidaren atsedendaldian zozketa egin zuten eta zenbaki saritua 066a izan zen. Tolosarren hurrengo partidarako, beraz, pixka bat itxaron beharko da oraindik.

4-5 galdu du Laskorainek Iturriondo taldearen aurkako partida

Areto futbol

» Azken segunduan sartu zuten gola aurkariak; horitxoek hirugarren jarraitzen dute sailkapenean.

ERREDAKZIOA

Txapelketako talderik onenen artean dagoen Iturriondoren aurka «egundoko ahalegina» burutu eta gero, 4-5 galdu zuen Laskorainek larunbateko partida.

Sailkapeneko hirugarrenaren eta laugarrenaren arteko neurketak ez zuen hutsik egin eta «oso polita» suertatu zen Usabaleran hurbilduriko zalego ugari suertatzen. Nor baino nor, maila tekniko eta taktiko altuko partida erakutsi zuten talde tolosarrak eta bilbotarrak eta «emozioa ere gainezka izan zen azkenean arte».

Lehen erdian ikastolakoak gehiago izan ziren, baloia jabetza horitxoena izan baitzen eta gol aukera argienak ere bai. Dena den, markagailuan atzetik joatea tokatu zitzaion ia beti, partida hasi eta berrehala 0 eta 1 ipini baitziren Iturriondokoak eta Saldiaren bana-koaren ondoren 1 eta 2 berriro.

Atsedendaldien ostean, oreka

Atsedendaldia eta gero hoge minutu orekatuago ikusi ahal izan ziren. Bilbotarrek gora egin zuten bere jokoa eta aldea handiagotzeko pare bat aukera garbi izan zituzten, baina Laskorainek gehien behar zuenean Barriola izan zen goglegile Telletxearen pase «zoragarri» bat sareratu. Minutu luze iraungo zuten binakako berdinketak joko paretatu zuten gainera.

Lau minuturen faltan amaierarako eta gola edozein aldetara eror zitezkeen, Saldiasek sartu zuen 3-2koa. Une horretan etxe koentzat zailenak egin zirudien eta defentsa sendotuz abantailari eustea gelditzen zen, baina hor eongo zuten partidaren gakoak, bizkaitarrek atezain jokalaria ateratzen baitzuten min «ikaragarria» eginez.

Bi minuturen faltan hiruakoa egin zuten bilbotarrek atezain jokalaritari eskerrak eta minutu baltan faltan hamar metrotik Telletxea laskoraindarrek berriro aurretik ipini bazituen ere, bizkaitarrek berriro berdindu zuten partida 4 eta 4, hobe segunduren faltan eta atezain jokalariren jokaldi berdinar eskerrak.

Azken segundorietan garaipenaren bila joatea erabaki zuten laskoraindarrek, atezain jokalarirekin. Azken jokaldian, posizioa forzatu eta baloi erdibitu bat probatu zuten horitxoek, erabakiorra gertatuko zena, baina kanpokoan alde erori zen, partida amaiera adierazten zuten turrutarekin batera sartu zutelarik 4 eta 5eko.

Antolatzaileen aurreikuspenak gainditu ditu 'Ahoz aho' jaialdiak

Kultura » Oso gustura agertu dira Asvineneakoak izan duen harrerarekin; argi dute datorren urtean errepikatuko dutela.

ESTI EZEIZA

Komunikatzeko hitza erabiltzen duten artisten eskenatoki izan da asteburu honetan Tolosa. Bertan, Ahoz aho, nazioarteko jaialdia ospatu baita. Asvinenea Arte Eszenikoen Sustapen eta Laborategiak antolatu zuen ekimena, eta amaitu orduko, hurrengo urtekoari begira hasi dira. Izan ere, bertako enesantetan, «uste baino harrera hobea izan du jaialdiak, eta oso gustura geratu gara emaitzarekin. Hori dela eta, datorrena prestatzeko gogotsu eta indarrez beteta gaude». Gainera, artisten artean «familia» bat sortu dela nabarmendu zuten.



San Esteban auzo-elkartean Michele Nguyen eta Valenti Piñot-ek eskainitako emanaldiaren une bat. ANDER OTEZABAL

«Tolosako jaialdia baliagarria izan da Euskal Herriko beste inguru batzuetara iristeko»

ANTONIO GONZALEZ » La Caratulako zuzendaria

Ahokotasuna » Duela 18 urte hasi zen La Caratula elkartearen Ahokotasun jaialdiak antolatzen; aurten estreinakoz hemen egin da.

E. EZEIZA

La Caratula antzerki taldeko zuzendaria da Antonio Gonzalez. Elkarrekin hau hasi zen duela 18 urte Ahokotasunaren jaialdiak antolatzen. Aurten lehendabiziko aldiz Tolosan egin da, eta honen inguruan mintzatu da Gonzalez.
Zein da Tolosako jaialdiaren inguruan egiten duzun balorazioa?
Aurreikuspen handiak genituen, baina denak gainditu ditu. Caratulako kide gehiago egonda zeuden Asvinenengan, eta ingurua ezagutzen zuten. Hortik sortu zen Ahoz-

kotasunaren jaialdia antolatzeko ideia. Hasieratik, harrera oso beroa jaso dugu, antolatzaileen nahiz ikuslearen artean. Beraz, oso gustura gaude, eta dirudienez, jarraipen bat izango du. Une oso hunkigarriak bizitu ditugu, emozio handiak. Maila handiko artisten emanaldiekin gozatzeko aukera izan dugu. Oroitzapen oso onak eta lagun handiak daramatzagu Tolosatik, eta itzultzea espero dugu. Jaialdiak aurrera jarraituko baitu, eta Tolosatik igaroko baita.

Hurrengo urtekoari begira hasi zarete beraz.
Bai, gainera, Tolosako jaialdia baliagarria izan zaigu Euskal Herriko beste inguru batzuetara ere iristeko, esaterako, Donostiara. Hala, Gipuzkoako hiriburuan antzeko zerbait egiteko asmoa ere badugu, Asvinenengan antzeko elkarte ba-

tekin harremanetan jarri baikara egun hauetan.

Tolosan egindako jaialditik zer nabarmenduko zenuke?

Ezin da ezer nabarmendu, izan ere, artista bakoitzak bere betebeharrak zeukan, eta gauzatu zuten. Estilo oso ezberdinak dituzte, eta ezin dira alderatu. Estilo, teknika eta forma ezberdinak zituzten saioek eta elkarrengandik oso bereizitakoak. Jendeak saio guztietan ondo pasa du, eta emanaldiek gorakako joera izan dute, baina ez kalitateagatik, errentuagatik baizik.

Eta zer da ez dena ongi irten, eta datorren urterako aldatu beharra dagoela ikusi duzuen?

Gauza txiki batzuk badaude, baina gutxi, agian egitura aldeko zerbait. Esaterako, euskarazko saioa eskaintzen zuten artistek arratsaldeko lauretan egin behar izan zuten, eta

ordu nahiko txarra zen. Asteburuetan bazkalostea luzatu egiten baita. Horregatik, aztertu behar dugu, ea nola sartu euskal saioak, besteen artean.

Gainontzeko jaialdiekin alderatuz gero, maila ona izan al da?

Bai, gainera, honek ahalbidetu du elkar gehiago ezagutzeko eta elkarriketa luzeak izatea. Gainera, jaialdi honekin oso harro egoteaz gain, esan daiteke, gainontzeko tarako ere ideiak hartu daitezkeela. Bestalde, oso ideia ona izan da, emanaldiak hiriko auzoetan banantzea. Halaber, beste kultura batzuk ezagutzeko ere baliagarri izan zaigu.

Datorren urterako zehaztu al duzue zer edo zer?

Zerbait garrantzitsua prestatuko dugu, baina oraindik ezin dut ezer aurreratu.

Seme-alabei ipuinak kontatzen ikasteko aukera bihar, Errotan

Kultura » 18:00etatik aurrera, Miriam Mendoza ipuin-kontalaria saioa izango da Tolosako Haur Liburutegian.

ERREDAKZIOA

Bihar, 18:00etan, 3-6 urte bitarteko haurrentzat, Miriam Mendoza ipuin-kontalariaren saioa izango da Errota Haur Liburutegian. Antolatzaileek adierazitakoaren arabera, gurasoek ekimenean parte hartzea gomendatzen da, «aukera paregabea baita etxean umeei ipuinak nola kontatu ikasteko».

Gainera, saioa amaitutakoan, umeei kontatutako ipuinen liburu-gida banatuko die liburutegiak gurasoei, hauek etxean kontatu ahal izateko.

Etenaren ostean, berriro hemen da Urkolaren omenezko duatloia

Kirolak » Martxoaren 8an jokatu da zazpigarren aldiz proba herrikoi hau; izen-emate epea ireki dute dagoeneko.

ERREDAKZIOA

Martxoaren 8an Javier Urkolaren omenezko VII. Duatloia herrikoi jokatu da. 1997an hasita, 2002 urtera arte sei ekitaldi egin ziren elkarren jarraian, eta orduz geroztik izan den etenari amaiera eman, berriro probari segida ematea erabaki du Tolosaldeko Triatloia Taldeak. Proban parte hartu nahi dutenek Shanti Kirolak dendan eman dezakete izena martxoaren 6a bitartean, bestela, egunean bertan 15:00etatik 15:45etara Plaza Zaharrean. Kirolariak, orotara, 4 kilometro egin beharko dituzte korrika, eta 15 bizikletaz.

Hilberriak

POLENTZI GEZALA SAGARZAZU



Beti izango zaitugu inoiz baino bertago, gure bihotz xokoan, gure lagun, gure babesle.

LEZO
2008ko
otsailaren 26a

LORENZO GARMENDIA ERAUSKIN

-Goian bego-

Lore bat bezala joan zera udaberria heltzean gure bihotzean izango zera bizi geran artean.

Zure bilobak: Gorane eta losu



ORDIZIA
2008ko
otsailaren 26a

MARIN MAIZTEGI ARRIZABALAGA

Gasteizen hil zen 2008ko otsailaren 23an, 84 urte zituela.

Agur aitona maitea.

Eneko, Paula, Julen, Ane eta Unai.

DONOSTIA, 2008ko otsailaren 26a

Blues Jaialdia berriro ere «arrakastatsua»

Zizurkil » Jende ugari izan zen kontzertuetan eta maila handiko taldeek jo zutela azaldu dute Udalak eta tabernariak.

I. GARCIA

Beste behin Zizurkilgo Blues Musikaren Jaialdiak «arrakasta» lortu du. Seigarren aldia da egiten dena, eta Egarrri tabernako Alex Intzak dioenez, «gero eta jende gehiago erakartzen du».

Maila handiko taldeak izan ziren larunbat gauean, batez ere, Los Reyes del K.O. Beraiekin batera

jaialdian izan ziren The Reverendos eta Special 20 taldeak. Bakotzak taberna batean jotzen bazuen ere, azkeneko emanaldian hiru taldekoak elkartu eta batera eskaini zituzten abesti batzuk, entzulegoaren gozamenerako.

Intzak azaldu duenez, «maila handia izan da eta oso balantze ona egiten dugu». Ainhoa Larrea Kultura teknikariak ere bat egiten du tabernarien iritziarekin: «Jende asko joan da kontzertuetara eta horietatik asko kanpotik. Tabernariak gustura gelditu dira eta musikariak ere bai, beraz esan dezakegu aurtengo jaialdia ere arrakastatsua izan dela».

Datorrenean Kultur Astea egiteko animatuta bukatu dute aurtengoa

Gizartea » Balantze «oso ona» egin dute Jesusen Bihotza Ikastolatik aurreko astean egindako ekitaldiei buruz.

IMANOL GARCIA

Villabonan eta Zizurkilen dagoen Jesusen Bihotzak bukatu berri du II. Kultur Astea, balantze «oso ona» eginez, Kontxi Ormazabal zuzendariak azaldu duenez. Are gehiago, datorren urtean berriro egiteko animatuta bukatu dute esperientzia. Ormazabalek azpimarratu du «jende pilabatek» lan egin duela.

Batez ere arrakastatsua izan dira igandeko ibilaldi neurtuak eta asteartean ikasleek egindako emanaldia. Bi ibilaldi neurritan 430 partaide izan ziren, Ikastola bertakoak zein kanpokoak ere bai eta antolakuntzan 50 lagun izan ziren. Ikasleen emanaldian Gurea aretoan goraino bete zen. Gurasoei zuzendutako tabakoari aurre egiteko tailerrak ez zuen hainbesteko arrakasta izan. Publikoari orokorrean irekita zeuden beste ekitaldietan, heziketari buruzko tailer-hitzaldia eta *Satorrak* antzezlanera, jende gehiago joan zen.



Ibilaldi neurtuene bat eta ikasleek egindako emanaldietako bat. HITZA

Ikasleei zuzendutako tailer batek harrera ona izan zuen. *Jar zaiten nire lekuan* izena zuen eta Espina Bifida eta ONCE elkarteak ant-

tolatu zuten ekitaldia. Ikasleek makilekin eta gurpildun aukiekin hainbat ariketa egin behar izan zituzten.

Laburrak

Guraso eskolaren bigarren saioa Anoetako Ikastolan

ANOETA » Anoetako Ikastolan guraso eskolaren beste saio bat egin-guro dute. DBHko gurasoei zuzendutakoa da eta guraso guztiak gonbidatuta daudela azaldu dute Ikastolatik. 18:30ean hasiko da saioa.

Photoshop programari buruzko ikastaroa

ALKIZA » Photoshop programari buruzko ikastaroa antolatu dute Alkizan. Kamera erabilera, argazkigintza-teknika eta Photoshoparekin eginko argazki tratamendu eta ukitu digitala jorratuko dituzte. Ikastaroa ikastetxean egingo dute eta martxoaren 6an hasiko da, 19:30ean. Guztira 30 ordu izango dira eta izena emateko epea martxoaren 3a bukatzen da. Informazio gehiago 943 69 39 30 zenbakian.

Afaria Emakumearen Nazioarteko Egunean

ALKIZA » Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira Ostatuan afaria antolatu dute. Martxoaren 8an izango da, 21:00etan. Izena emateko epea martxoaren 3an bukatzen da Aiztondoko bulegoetan.

Parisera bidaia eta Guggenheimerara irteera

AIZTONDOKO » Parisera joateko bidaia antolatu nahian dabilta eta horretarako zenbat lagunek emango luketen izena jakin behar dute. Izena emateko epea martxoaren 18an bukatuko da. Bestalde, jubilatuen irteera antolatu nahi dute Guggenheimerara martxoaren 12an. Epea martxoaren 5an amaitzen da. Bai bidaiarako bai jubilatuen irteerako Aiztondoko bulegoetara deitu behar da 943 69 39 30 zenbakian.

Emakumearen Eguna dela eta Ostatuan afaria

LARRAUL » Herriko Ostatuan afaria antolatu dute Emakumearen Nazioarteko Egunaren inguruan. Martxoaren 7an izango da, 21:00etan. Izena emateko epea martxoaren 3an bukatzen da Aiztondoko bulegoetan eta Ostatuan bertan.

Idoia Sanchez ipuin kontalaria liburutegian

ALKIZA » Galtzaundik antolatuta, Idoia Sanchez ipuin kontalaria saioa emango du martxoaren 6an Alkizako liburutegian. 17:00etan hasiko da.

300 lagun inguru elkartu ziren KMK 2008ren kantu afarian

Anoeta » Antolatzaileak «oso gustura» ekitaldiaren nondik norakoekin; herriari eskerrak emateko balio izan du kantu afariak.

I. GARCIA

Kilometroak 2008ko Anoetako Batzordeak eta Ikuskizun Batzordeak bultzatuta, larunbat gauean kantu afaria egin zuten Anoetako frontoian. Antolatzaileak «oso gustura» agertu dira ekitaldia nola izan zen ikusita. «Janaria oso gozoa zegoen eta giroa ere oso ona izan zen. Arrakastatsua izan dela esan daiteke».

Izan ere, 300 lagun inguruk parte hartu zuten. «Batenbat joan gabe gelditu zen, baina kopuru horiekin zerrenda itxi behar izan genuen, bestela esan baikenuen sukaldako lana ondo bete». Hain zuzen, antolatzaileek Kuku elkarrean sukaldari lanetan aritu zirenen jarduna goraiatu dute. «Oso ondo prestatuta zegoen eta hainbeste jenderentzat afaria egitea ez da batera erraza». Afaria eta gero Antton Iztueta arduratu zen elkar-



Frontoian egin zuten kantu afariaren une bat. HITZA

tu zirenak kantatzen jartzeaz eta bukaeran Unsain Anaiek erromeri giroa jarri zuten.

Eskerrak emanez

Afarian zehar, Kilometroak 2008ren antolatzaileek Anoetako herriari eskerrak emateko baliatu zuten, bai jaialdia antolatzeagatik bai orain arteko beste ekintzetan zein etorkizunean etorriko direnengatik. Horrela, Anoetako Ikasitokiari, bertako guraso batzordeari, Gazteteagari, Kuku elkarteari eta

Udalari eman zizkieten eskerrak. Bestalde, afaria girotu zuten Antton Iztueta zein Unsain Anaiek ere jaso zituzten esker onak.

Horrez gain, Kilometroak 2008ren inguruko hurrengo ekitaldien berri eman zuten. Hala, martxoaren 8an Pirritx eta Porrotx pailazoan emanaldia izango da eta apirilaren 26an Nñanarri-Irura Rally Sprint antolatuko dute. Azken ekitaldi honetarako boluntarioak beharko dituztela azaldu dute antolatzaileek.

DISEINATZAILEA

Donostia aldeko publizitate eta marketin enpresa batek diseinatzaile bat behar du.

Erreferentzia: 2008 IR-DP

Eskatzen da:

- Diseinuan esperientzia izatea.
- Diseinu programak menperatzea (Freehand, Photoshop, Quark...).
- Publizitate produktuen ekizpenean esperientzia izatea.
- Harremanetarako gaitasuna izatea.
- Gidabaimena eta autoa izatea.

Eskaintzen da:

- Urte bateko kontratua (luzatzeko aukera).
- Egun erdiko kontratua (goizeko edo arratsaldeko aukeran).
- Lanean berehala hastea.

Bidali curriculuma gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora, erreferentzia zehazturik, martxoaren 9a baino lehen.

B Blogteka info

Saharar prentsa ere aurrera

Beste urte batez, Tolosaldea Sahararekin Sahara Bizi elkarteak Saharar Errepublikan Demokratikoa aldarrikatu zeneko 32. garren urteurrenaren kariatara antolatzen diren ekitaldien baitan, Essahra Elhona egunkarira hurbildu da, herbeste-ko Sahararren egunkari nazionala denari bultzada bat emateko asmoz.

Gure eskualdeko herritarren eta erakunde desberdinen ahaleginarekin lortutako diru laguntzarekin erositako material informatikoa bertako zuzendariari entregatu berri diogu.

Egunkariaren erredakziotik idazten ari garen artikuluko honen bidez, Tolosaldea Sahararekin Sahara Bizi elkartearen izenean proiektu hau ahalbidetu duzuen guztiari Saharar Herriaren eskerririk beroenak helarazi nahi dizuegu.

Euskal eta Saharar prentsa aurrera!

Maroko Sahararik at, autodeterminazioa eta independentzia mendebaldeko Saharentzat.

Tolosaldea Sahararekin
<http://www.tolosaldeko-hitza.info/bl-ogak/sahararekin>

Merce Aranega gure eskolan

Pasa den asteartean Merce Aranega idazlearen bisita izan genuen 2. mailako ikasleak.

Idazle honek ipuin oso ezagunak ditu gure artean: "Txit Oilo bitxia eta..." eta "Mikela" igelaren ipuin bilduma, besteak beste. Oso dibertigarria izan zen berarekin pasa genuen saioa. Bere pertsonai nagusien marrazki handi bat egin zigun eta esan zigun ere "...ipuinak gure irudimenetik sortzen dira..."

Jarri zuen irudimena martxan eta ipuin politikak sortu!

Doctor Fleming ikastetxea
<http://www.tolosaldeko-hitza.info/bl-ogak/fleming>

Aiztondo Mankomunitateak II. Gutun Lehiaketa antolatu du

Literatura » Parte hartu nahi dutenek apirilaren 8a izango dute aurkezteko epea; adinaren arabera lau maila desberdin daude.

ERREDAKZIOA

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateko kultur dinamizazio arloak Aiztondo II. Gutun Lehiaketa antolatu du. Bertan parte hartu nahi dutenek apirilaren 8a izango dute azken eguna.

Lau mailatan parte hartuko dute interesatuek: A Maila (6-8 urtekoak), B Maila (9-11 urtekoak), C Maila (12-16 urtekoak) eta E Maila (17 urtetik gorakoak). Guztientzat gaia berdina izango da, hau da, natura. Parte hartzaile bakoitzak gehinez bi lan aurkez ditzake. Gutunak bi orri hartuko ditu gehiezin, bakarrik alde batetik idatzita.

Epaimahaiak estilo, kontatuaren garapena, aurkezpena, eta orijinaltasuna hartuko ditu kontuan eta, eskuz idatzitako lanak badira, baita kaligrafia ere.

Hala, gutunek beste lehiaketa batean saritu gabeak, jatorrizkoak, eta argitaratu gabeak izan beharko dute. Hiru kopia aurkeztu beharko dira, izenburua edo egilearen izen goitia soilik idatzita, idazlea identifikatzeko bestelako xehetasunik gabe. Jatorrizkoarekin batera, eta kartazal itxian, egilearen datuak sartuko dira: izena, deiturak, helbidea, jaiotze data, telefonoa eta posible bada, posta elektronikoa. Kartazalaren kanpoaldean, idazlanaren izenburua edo izen goitia eta zein kategoriari dagokion idatziko da.

Gutunak Aiztondo Zerbitzuen Makomunitateko Bulegoa, Muroa kalea 36, behe, 20.159 Zuzurkil (Gipuzkoa) helbidera bidali be-

harko dira, kanpoaldean Aiztondo II. Gutun Lehiaketa jarrita.

Sari dotoreak

Maila bakoitzeko sariak honakoak izango dira: A Mailako lehenengo saridunak eta bigarrenak oparia jasoko dute; B Mailako lehenak eta bigarrenak ere oparia jasoko dute; C Mailako lehenengo sariak 100 euro jasoko ditu, eta bigarrenak 50 euro; eta D Mailako lehenengo sariak 300 euro jasoko ditu, eta bigarrenak 150 euro. Bestalde, Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten herrietako idazlerik hoberenak gau bat irabaziko du nekazalturismo batean bi pertsonentzat.

Sari banaketa ekitaldia maiatzaren 11n izango da. Hau Alkizako Kultur Etxean egingo dute, 18:00etan. Ekitaldi horretan irakurri egingo dituzte sarituak izan diren lanak.

Z Zurea da hitza info

Tolosako trafikoari buruz hainbat kexa eta galdera

Tolosa » San Frantzisko elizaren ondoan jarri duten zebra-bidea ez zait egokia iruditzen, ezta inguruko hesiak ere.

IKER (TOLOSARRA)

Herri honetan egiten dituzte aldatekin harrirta nago. Orain San Frantzisko elizaren ondoko zebra-bidea badenarekin jarri dute. Be-

harrezkoa al zen? Kale horretan autoek ez dute abiadurik hartzen. Gainera, ingurua hesitu egin dute baina horrekin jendeak errepidetik igarotzea lortu dute, zebra-bidetik igaro ordez. Nire galdera da, zertarako jarri dute hori? Herriarrok ez dugu informaziorik jasotzen.

San Frantziskon, zer?

Beste kexa bat ere agertu nahi dut, izan ere, San Frantzisko ibiltokian

zehir zeuden bi baden horiek azkar kendu zituzten Inauterietako karrozentzat. Orain, ordea, ia-ia hilabete pasa da eta oraindik ez dituzte jarri. Ez al ziren hain garrantzitsuak ikastetxe pasabiderako? Non geratu da orain garrantzi hori? Jendea mareatu egiten dutela iruditzen zait, jarri eta kendu herriarrok informatu gabe... Zer dago horrela, proba bezala? Betirako geratu behar al du horrela? Mesedez, informazio pixkat...

'El violin' filma izango da etzi ikusgai zine-forumean

Tolosa » Emanaldiak beti bezala, 19:00etan eta 21:45ean izango dira Leidor aretoan, 4 euroren truke.

ERREDAKZIOA

Zine-forumean *El violin* filma izango da ikusgai, Leidor aretoan 19:00etan eta 21:45ean, 4 euroren truke.

Zuzendariak erraz jarraitzen den istorio bat kontatzen du, go-

rantz doan suspensea euskarri hartuta. Filmaren azken zatiak «harri eta zur uzten du ikuslea». Narrazioaren nondik norakoak biolin jotzaile zahar besomotzaren gana zuzenduko du, harengana bideratzen baitu arreta zuzendariak.

Zine-forumeko arduradunek esan bezala, «aparta da Francisco Vargasen gidoia, ikusgarriak dira zuri-beltzeko irudiak eta paregabeak dira interpretazioak, esaterako, Angel Tavira aktore ez-profesional zaharrak eginko lana».

tolosaldea innova, gipuzkoa innova, euskadi innova

Abagnez gorbildatzen zaibagu datoren otsailaren 28an, Tolosaldea Garzterren eskualdeko berrikuntza agente bezala aurkeztu izango den ekitaldia.

- Lekua:** Idoiaz Jauregi. Plaza Zaharra 1-Ing. solaina, TOLOSA
- Egitentzia:**
 - 19:00 Ongietorria eta aurkezpena
 - 19:05 Enkuntzeen eskualdeko berrikuntza emango duen taldearen aurkezpena
 - Jose Ramon Guiso, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzarako eta Inerjiazaren Guztarenko idazlea
 - Jose Ignacio Zubane, Euzko Jaurlaritzako Berrikuntza eta Enpresa-ko zuzendaria
 - Mauri Lazcano, SPIRIKO zuzendaria nagusia
 - 19:30 Tolosaldeko Lehiakoritasun eta Berrikuntza Planaren aurkezpena
 - Jokin Beldarratz, Tolosaldeko Garzterrenko lehendakaria
 - 19:45 Hitza: "Casa Euzko berrikuntza eredu"
 - José Ander Torre, Casa Euzko zuzendaria nagusia
 - 20:15 Lantzea

Beharberria: da partekidetzat bazentzena.

2008 Berrikuntza urte euskadi año de la innovación

TOLOSALDEA GARAZTEN

943 504901 empezad@tolosaldea.net www.tolosaldea.net

www.euskadi-innova.net

Euskadi+innova



G Gutunak

Ibarraren etorkizuna kolokan?

Haur Eskolaren gaia denon ahotan dabilenean gure hausnarketa egin nahiko genuke gai honen inguruan, gure iritzia emanaz eta azken urteetako ibilbidea aipatzuz.

Uzturpe Ikastolak Tolosa herria ondoan izanagatik, urteetan zehar herriko haurrak bertan mantentzeko arazoak izan ditu.

Ibarra lotarako herri izateko arriskuan zegoenean, ezker abertzalek herriaren aldeko apustu garbia egin genuen, Uzturpe Udala Haur Eskola abian jarri (66.000 euroko inbertsioa egin zuen udalak).

Sei urte igaro direnean fruituak jaso ditugu eta esan dezakegu Uzturpe Ikastolako haur kopuruak gorantz egin duela nabarmenki, Haur Eskolako haurren (0-3) gehiengoak ikastolan jarraituaz (3-16). 2001ean 2-3 urteko ibarrako haurren %21ak erabiltzen zuen ikastola eta 2007an %68ak.

Egun, Ibarra bizirik dagoen herria da eta bertako haurrak herrian hazi, hezi eta bizi dira, herriaren nortasuna bermatzeko beharrezko elementuak izanaz.

Gurasoak oso gustora daude egungo Haur Eskola zerbitzuarekin (proiektu pedagogikoa eta berri ahalbideratzen duten hezitzaileak, 0-3 urte bitarteko zikloa mantentzea, bertako sukaldaria eta herriko dendetako produktuekin osaturiko otorduak, antolatutako hitzaldi eta ikastaroak). Aldiz, Partzuergoaren hezkuntza proiektuaren berri jakiteke gaude oraindik ere.

Hala eta guztiz ere Udalak, datorren ikasturterako Haur Eskola zerbitzua Hezkuntza Saileko Partzuergoaren esku uzteko erabakia hartu du, arrazoi bakarra argudiatuz: zerbitzuaren izanera publikoa mantentzea.

Herriaren etorkizuna kolokan jarri dezakeen erabaki garrantzitsu honen aurrean publikoa eta pribatuaren arteko eztabaida an-

tzua dela iruditzen zaigu. Errealitatean, Hezkuntza Ikastetxe bakarra dugu herrian eta honen alde egitea funtsezkoa da, ahal dugun heinean gure babesa eta bultzada eskeiniz.

Aipaturiko guztia kontutan izanik, zergaitik hartu du udalak erabaki hau? Ez al da erabaki politikoa izango? Udalaren egin beharra ez al da herriaren alde lan egitea? Udalak ez al du herriko ikastola bakarra defendatzeko ardura? Ez al dagokio udalari bertako haurrak herrian geratzeko ahalegina egitea? Nolako herri eredia bultzatzen ari dira?

Herriarentzako eta herriarengatik lan egiteko herria sentitzea beharrezkoa da, egunerokotasunean bertan biziz eta parte hartuz. Eta udal parte hartzaile batek honelako erabaki bat hartu aurretik herriarekin hitzegin behar du, eztabaidatu behar du, proposamen berriak aditzera eman behar ditu.

Aitor Garmendia, Maider Lopetegui eta Edurne

Urdepilleta. Ibarra Euskara eta Hezkuntzako EAE-ANVren zinegotziak.

Egiaren atzean babesturik

Azkenaldi honetan Ibarra haurtzaindegia desagertzeaz dagoela entzun dugu: gezurra.

Bertako haurrak hemendik aurrera okerrago zainduak egongo direla: faltsua.

Irakasleen egoerarengan eragina izango dutela hartu nahi diren erabakiak: bai, baina hobekiago.

Haurren bazkaria katering modukoa izango dela: gezurra, bazkaria eskolan bertan prestatuko da.

Hitz egin aurretik ongi informatu behar du batek, eta zerbaitegatik zure sinadura eman aurretik ere bai, bestela, Pandoraren kutxa irekitzeko arriskuan jartzen baitzara.

Egia da Udaletxea haurtzaindegia egiaren egoera aztertzen ari dela. Irakasleekin hitz egin du, haur-

tzaindegia zuzendaritzarekin, beste herriekin,..... baina bada herriaren kutsaturiko urak nahasten ari den iturri bat, gezur hutsak besterik zabalitzen ez dituen. Beraien oker eta pozoinduriko geziekin ibartarrak nahastea besterik lortzen ez duena. Udaletxearen nahi bakarra, haurtzaindegia egiaren erregularizatzea da, orain arte, 2008ko uztailean amaitzen baitzaio kontratua, Uzturpe S.L. enpresa pribatuaren gestiopean.

Gezur mordo hauen aurrean, Udala gobernuak ibartar guztiei argi utzi nahi die haurtzaindegia ez dela desagertuko, baizik eta, ibarra haur guztiei behar duten laguntza eta merezi duten trataera eskainiko diela hobekuntzak eginez.

Udaletxe hau gestiopean dugunok ere, guraso eta pertsona arduratsuak gara, ez dugu guraso, ikasle eta irakasleak mindurik atertzeko interesik.

Itziar Jauregi. Ibarra udaletxeko gobernu taldearen izenean.

'Independentzia Eguna' ospatu dute Amezketan eta Leaburun

Politika » Jai giroak eta eskaera politikoez bat egin zuten herenegun Amezketan eta Leaburu-Txaraman.

ASIER IMAZ

Amezketa eta Leaburu-Txaraman *Independentzia Eguna* ospatu zen herenegun. Herriar multzoa bildu zen bi herrietan, alde batetik «independentzia eskatuz» eta beste alde batetik «jai giroan eguna igaroz».

Leaburu-Txarama

Pilota txapelketa herrikoiak eman zion hasiera *Independentzia Eguna*ri Leaburu-Txaraman. Txapelketa parte hartzeko Euskal Herriko selekzioaren kamiseta eman beharra zegoen eta horrela egin zuten pilotalekura agertu ziren partaideek.

Pilota eta hamaiketakoaren ondoren, haritza landatu zuten herriarrek. 12:00ak inguruan berriz, ikurrinari omenaldia egin zioten txalapartari eta bertsoari ez lagundurik.

Goizari Toka Txapelketarekin eman zioten amaiera, nahiz eta herri bazkarian elkartu aurretik,

argazki herrikoia atera zuten. Bazkaltzen ari ziren bitartean, 21 lagun inguru, argazki erakustaldia ere izan zuten, amaitzean kartajokoak izan zituzten bezala.

Egun osoan zehar, ospakizunek irauten zuten bitartean, nahi zuenak Andoni Otegi euskal preso leaburuarrari postal bat idazteko aukera izan zuten.

Amezketa

Independentzia Eguna dianarekin hasi zuten 10:00etan Amezketan. 11:00etan haurren txanda iritsi zen, jolasak izan baitzituzten. Arratsaldean berriz txikienez pailazoekin gozatzeko aukera izan zuten.

Leaburu-Txaraman bezala, Amezketan ere kirolak bere tartea



Leaburu-Txaramako herritarrek argazki herrikoia atera zuten bazkaltzera joan aurretik. HITZA



Leaburuko frontoiaren aldamenean ikurrinari omenaldia egin zioten. HITZA

izan zuten herenegungo ospakizunean.

12:00etan Orendain eta Amezketa arteko herri kirol lehia burutu zuten, ozta-ozta amezketarrak nagusitu zirelarik. Bazkari eta Mus Txapelketak bete zituen arratsal-

deko lehen orduak, haurrak pailazoekin jolasean zebiltzan bitartean. Txikiarentzako saioa amaitu ondoren, 80 lagun inguruk *Guk Independentzia* lelopean manifestazioa egin zuten herri guztian zehar.

Laburrak

Ijurko eta Aramendiren ongi-etorriko bilera gaur

IBARRA » Eider Ijurko eta Ekaitz Aramendi euskal preso ongi-etorria antolatzeko bilera egingo da gaur 19:30ean Ibarra Kultur Etxean. Omenaldia martxoaren 22an, larunbatean, egingo diete eta prestakuntza lanetan parte hartu nahi duenak asteartero egingo diren bileretara aurkeztea besterik ez duela aipatu dute antolatzaileek.

Gaur egingo den udal bilkurara agertzeko deia

IBARRA » Ezker abertzaleak Ibarra-ko ANV-EAEn zinegotzien deialdiarekin bat eginaz, gaur 18:00etan udaletxean egingo den ohiko bilkurara agertzeko deia egin die herritarrei. Bertan, ANV-EAEk sartutako ilegalizazioen inguruko mozioa eztabaidatuko dute gaur ohiko bilkuran eta honi babesa ematea izango du ezker abertzaleak helburu.

Belabieta kiroldegian mahai tenis txapelketa

IBARRA » Iragan larunbatean mahai teniseko Gipuzkoako Txapelketa jokatu zen taldeka, banaka eta binaka mutiletan mailan Ibarra Belabieta kiroldegian. Taldekako txapelketa, sailkapen nagusian Villabonako Olaederra laugarren postuan geratu zen. Bestalde, Iker Mugerza tolosarraren lana aipatzeko izan zen, jubenil mailan, azken faserako sailkatzea lortu zuen eta amaieran bederatzigarren geratu zen.

NAIARA GARZIA

Amaitu da Binakako Txapelketaren ligaxka. Askorentzat luze joan da, orotara 8 jardunaldi jokatu baitituzte, eta azken partida (Bengoetxea eta Ruizentzat aurrera jarraitzeko erabakiorra) atzo jokatu zuten, Olazabal eta Lasa I.L.ak Koka eta Beginoren aurka, azken hauek 22-12 irabaziz. Barriolak, Olazabalek eta Bengoetxeak ligaxkaren inguruan gogoeta egin dute.

Zortzi partidetan garaile

Barriolak eta Gonzalezek 8 partidetatik zortzirik irabazi dituzte, igandean jokaturakoa azkena. «Denak irabaztea ez genuen espero, txapelketa hasi aurretik ez geunden faboritoen artean, ezta finalerdietan sartzeko ere. Txapela aipatzen zenean 3 edo 4 bikote esaten zituzten, baina gu ez geunden horien artean». Faboritoen artean ez zeuden arren, duela hiruzpalau jardunaldi jada finalurrekoetarako sailkatu egin ziren. «Lehenengo partida ez genuen oso ongi jokatu, baina irabazi egin genuen, eta gero bigarrenetik aurrera oso ongi jokatzen hasi ginen. Partida guztiak irabazi ditugu eta gustura gaude. Orain finalerdiak heldu dira eta hori izanen da gogorrena». Askoren iritziarekin bat eginez, aurtengoa historiako ligaxkarik luzeenetarikoa izandu dela aipatu du leitzarrak. «Luzeena izandu ez bada, luzeenetarikoa izandu da, behintzat, partida asko jokatu ditugu».

Bi hilabete hauetan zehar jokatu dituen partida guztietatik 2 azpimarratu ditu Barriolak. «Gustura jokatu nuen partida bat, Olaizola II.a eta Zearraren aurkakoa izan zen. Beste bat esan behar banu, Olaizola I.a eta Otxandorenaren aurka jokatu genuena esanen nuke. Oso partida gogorra izan zen, baina oso gustura gelditu nintzen».

Astebururo partidak jokatzearaino, normalean beste norgehiagokak ere ikusi egiten dituela dio Barriolak. «Normalean beste partidak ere ikusi egiten ditut, etxetik gehienetan. Pilota partida politik izan dira eta onak ere bai, baina pasatu dena izan da aurtan lesio asko izan direla, eta gaixotasun asko, nik ere gripea izan nuen. Baja asko izan dira, eta titularrak jokatzen ez badu saltsa pixka bat galdu egiten du txapelketak. Baina gainontzean egon dira partida onak, txarrak... denetatik».

Lehenak, baina faboritoak ez

Herenegun Leitzeta eta Ruizen aurka jokaturako partida 22-20 irabazi zuten, eta honen aurretik jarraian 22-21eko emaitzarekin irabazi zituzten azkeneko 3 partidak. «Guretzako ez dira hil ala bizikoak izan, guk lehenengo laurak irabazi genituen eta tanteo oso ona genuenez, ia lau garaipen horiek sailkatuta geunden. Orduan 22-21 irabazi arren, ez ziren oso partida garrantzitsuak guretzako, baina beharbada aurkarientzat bai».

Halere, sailkapenean lehenak



Oinatz Bengoetxea Patxi Ruizekin Lasa eta Eugiren aurka urtarrilean Beotibarren jokaturako partida batean. ASIER IMAZ

izan arren, oraindik ez direla faboritoak dio. «Horiek iritziak dira. Euskadi Irrati-ko Txapasek ere esan du, ez zaiola iruditzen faboritoen artean gaudenik, partidak irabazi, irabazi ditugula, baina azkenekoak justu xamar. Pilotari batek edo bestek esan du txapelketa nola joan den ikusita, Aimar eta Titin

gora joan direla, eta orduan 2 bikote hauek faboritoen artean ikusten dituzte».

Duela pare bat hilabete jarri zuten abian Binakako Txapelketa eta Gonzalezekin egin du bidaia luze hau, eta berarekin eginen ditu hemendik aurrera etortzen diren partidak ere. «Bikote bezala oso

ongi moldatzen gara. Lehenengo kantxatik kanpo bikote egiten saiatzen gara, eta gero kantxan».

Mikel Olazabalen esperientzia

Olazabal aresoarrak lau partida jokatu ditu. «Berez Irujok jokatu behar zuen, bere lesioarengatik gero

Eugik eta honek ere utzi egin zue-nez ni sartu nintzen», dio Olazabalek. Aresoarrentzat ez da erraza izan maila honetan jokatzea. «Askok aldatzen da, pilotak askoz ere fuertegoak izaten dira txapelketan eta pixka bat ezinean ibili naiz. Aurkariek ere beste maila bat dute, askoz ere zorrotzagoa. Zailagoa da».

Halere, hasieratik «poza eta ilusio handiarekin» hartu zuela dio. «Banekien beste maila bat zela, eta irabaztea oso zaila zela. Ongi jokatuz gero, gerra pixka bat ematea zen nire asmoa, eta aurreneko partidatan nahiko ongi aritu ginen baina gero bigarrenengo eta hirugarrenengoan aise galdu genuen».

Atzo jokatu zuten norgehiagokari dagokionez, gogorra izanzen zela aurreikusten zuen. «Beginok kolpe handia dauka eta Kokak ere bai». Maila honetako pilotariak luze jokatzen dutela dio. «Gainera pilotak fuertekak izaten dira, eta ezinean ibiltzen naiz. Baina mesedetako besterik ez dela uste dut, askotan ezinean zabiltzanean, ikusten duzu zerbait egin nahi baduzu gauzak ongi egin behar direla eta nik uste ikasteko hoberena dela».

Bengoetxea VI.a

Bengoetxea VI.ak asteburu honetan ez du jokatzetik izan, bere orde-z Ruizek Leiza pilotariarekin jokatu zuten Barriola eta Gonzalezen aurka. Galdu egin zuten arren (22-20), Patxi Ruiz pozik agertu zen lortutako tanteoarekin. Atzo arratsaldean Beotibarren jokaturako partida eta gero, Oinatz Bengoetxea eta Patxi Ruiz sailkatu dira finalurrekoetarako. Izan ere, Koka eta Beginok 22-12 irabazi zieten Olazabal eta Lasari. Beraz, azken hauek 6 tanto baino gehiago egin zituztenez, tanto kopurua kon-tuan hartuz, aurrelari leitzarrak txapelaren lehian jarraitzen du.

Oinatz Bengoetxeak ere bat egin du Abel Barriolaren iritziarekin. «Nire ustez ligaxkan denetatik egon da. Partida hobeak, okerragoak... Gertatzen dena da, horrelako txapelketa batean arriskatzea eta jokaldi politik egitea ez dela beste zenbait partidetan bezain erraza, txapelketa hau garrantzitsua baita, eta ezin zaitezke arriskatu».

Abel Barriolak, Mikel Olazabalek eta Oinatz Bengoetxeak Binakako Txapelketaren ligaxkaren inguruan gogoeta egin dute. Atzoko partidari, Koka eta Beginok 22-12 irabazi zuten Olazabal eta Lasaren aurka.

Ligaxkari aio



Joan den astelehenean Bengoetxea eta Olazabal, Beotibarren. NAIARA GARZIA



Barriolak orain «zailena» heldu dela dio. JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS



15°
10°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	13°
HOTZENA	9°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Ibarra.** Udal batzarra 18:00etan udaletxean: Agenda 21, gobernu batzorde aukeraketa, zinegotzien soldata, alderdi politikoen ilegali-zazioa...

■ **Tolosa.** San Esteban elkarteak iaz hil zen Joaquin Santamaria bazkidearen omenezko afaria antolatatu du hilaren 29an. Ezagutu zuten bazkide, lagun, inauterizale eta txarangako kideei irekia da. Izen-ematea, elkarte.

■ **Tolosa.** Iturriza elkarteak Corellara irteera antolatatu du martxoaren 14rako. Izen-ematea, elkartearen 35 eurotan (bazkideek, 33).

■ **Tolosa.** Harizpe elkarteak Asturiasera bidia antolatatu du apirilaren 23tik 28ra (pentsio osoa 250 euro, 245 ez bazkideek). Izen-ematea, elkarte.

■ **Zizurkil.** Gutun Lehiaketa naturari buruz 6 urtetik aurrera. Bi lan aurkez daitezke, gehienez bi orrikoak. Gutunak Aiztondoko Zerbitzuen Mankomunitateko bulegora eraman behar dira, Zizurkilgo Muro kaleko 36 zenbakian.

Erakusketa

■ **Tolosa.** Txetxo Gaztañagaren artista tolosarraren marrazki eta margolanak izango dira ikusgai Aranburu Jauregian.

Kirolak

■ **Tolosa.** Javier Urkolaren omeneko VII. Herri Duatloia martxoaren 8an, 16:00etan hasita: 2 km korrika, 15 km bizikletaz eta 2 km korrika. Izen-ematea, udaletxea, Karlis, Shanti Kirolak eta Zut-en.

■ **Tolosa.** Eskiak Euskal Herrian 100 urte bete dituela-eta atzoko eta gaurko eskiatzaileen afaria egingo da martxoaren 2an Lekunberriko Aiestaran hotelean. Izen-ematea, 670 029898 (Ane) eta 943 288652 (Alberto) zenbakietan.

■ **Belauntza.** Belauntzako Kultur Etxeak Oargi Mendi Elkartearen laguntzaz Eskiatzera joateko irteera antolatatu du; hilaren 29an iluntzean aterata eta Martxoaren 1 eta 2an Candanchun eskiatzeko aukera egingo da.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 673649.

■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunkizunik.

Dominikar Errepublika gertuago

Tolosa » Dominikar Errepublikaren Independentziaren Eguna ospatzeko jaia antolatatu dute biharko.

ERREDAKZIOA

1844. urtean, bihar bezalako egun batean herrialde independente aldarrikatu zen Dominikar Errepublika. Datoren garrantzia aintzat hartuta, Tolosaldeko dominikarrek ere eguna ospatu nahi izan dute. Hala, jaia antolatatu dute bihar Tolosako Txanpa Latino tabernan, 20:00etatik aurrera. Bertan dantzaldia egingo dute, «giro ezin hobean».

Ekitaldia antolatzeko Ereite elkarte kulturantzaren eta Txanpa Latino tabernako jabearen laguntza jaso dute. Tolosan bertan hamabi dominikar inguru bizi dira eta euren ordezkari bezala, Mayi Castilok eta Ramona Rodriguezek eman zuten ekitaldiaren berri atzokoan.

«Gure herrian ez gaudenez, nolabait ospatu nahi dugu guretzat berezia den egun hau, pixkat zaila egin zaigu, baina urtez urte hobetzea espero dugu», azaldu zuen Ramona Rodriguezek. Independentziaren egunarekin batera, Inauteriak ere ospatzen direla azaldu zuten bi dominikarrek. «200 urte baino gehiago dituen jaia mantendu nahi dugu eta aldi



Eske-erkuin: Mayi Castillo, Iñaki Arana, Ramona Rodriguez eta Rita Calderon. M.S.S. / NOTICIAS DE GIPUZKOA

berean, tolosarroi ezagutzera eman nahi diegu gure kultura», azaldu zuen Castilok. Bide batez, «ohitura mantentzea» da helburua.

Helburua, integrazioa

Rita Calderonek, Ereite elkarte kulturantzaren ordezkariak, azaldu duenez, «beste integrazio bat da, kultura guztiak ordezkatuak egon daitezkeen antolatuta da jaia».

Ildo honetan, «garrantzitsutza» jo dute Tolosako herritarrek Dominikar Errepublikaren kultura ezagutu dezaten, «jaiaren eta dantzaren bitartez». Halaber, «estertipioak baztertzeko» nahi dute eta tolosarren eta dominikarren arteko festa izatea nahi dute. «Mundu guztia dago gonbidatuta; une egokia izan daiteke elkarrekin egoteko eta agerian geratzeko etorkinak ez garelako talde itxia».

Jaia antolatatu behar duten tabernaren jabeak, bestalde, biharko guztia prest izango duela azaldu du. «Paingarri egokiak jarriko ditugu eta itxura polita hartuko du tabernak».

Edaria eta batxata eta merenge doinuak ez dira faltako eta «oinarriko ikastaroren bat» ere eman go diete bertaratzen direnei, «guztiok elkarrekin dantza egin ahal izateko».

A Agurrak



Urte askoan!

Kristoren adina. Zure iritzia errespetatzen dugu, baina badakizu... Ez gara ahazten. Zorionak eta jandepora!!

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak ezkontzak - jaioberriak jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosa: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak